

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Beti-Xikuren kasuan, balio-proposameneko eskaintza ahalbidetzen duten baliabideak, fisiko, intelektual, eta giza-eta finantza-baliabideak dira.

Baliabide fisikoari dagokionez, enpresaren lehen pausuak eman eta adosteko elkartzeko toki bat genuke, lokan ofizial bat izan ezean, besterik gabe kideak elkartu eta taldean lan egitea ahalbidetuko duena. Ahaztu gabe online gestioak egiteko ezinbestekoak diren ordenagailu zein mugikorrak, eta produktua bera gauzatzeko beharrezkoa den materiala.

Baliabide intelektuala eta giza-baliabideak eskutik doaz Beti-Xikuren kasuan, izan ere taldekide bakoitzak proiektuaren aspektu jakin bat indartzen du. Alde batetik Leire finantzeta arduratuko da, enpresaren kontuak, igoera zein jaitsierak eta salmentak zainduz. Bestalde Ane komunikazioaz arduratuko da. Hala nola aliantzak egitean edota bezeroekin kontaktua egiterako orduan enpresaren irudi ona bermatuz. Anje eta Maddik enpresa zein produktuaren irudimenezko alderdian jardungo dute, sare-sozialetako irudiak, produktuaren diseinua, berrikuntza ezberdinak... Hala enpresaren irudia baliabide estetikoari dagokionez haien esku egongo da bereziki. Azkenik, gure oinarrizko lantaldetik at, webgunea sortzen lagunduko digun webgaratzaile bat kontratauko beharko dugu.

Ekoizpenari dagokionez, bi aukera nagusitzen dira besteak beste, kostuaren arabera zehaztu beharrekoak. Lehen aukera, bigarren enpresa baten zerbitzuaz baliatzea litzateke, produktuaren ekoizpena beren esku jarriz, hala nola, materiala, eta beronen manufaktura. Beste aukera, produktuaren ekoizpenaz gu geu arduratzea litzateke, beharrezko materiala lortzea eta berau moldatzea besteak beste.

Bukatzeko, finantza-baliabideei dagokionez, Beti-Xikuren kasuan oinarrizko aurrezkiez gain, Ezpeleta aterki enpresarekin egingo dugun aliantzan oinarrituko da. Haren bitartez jasoko dugu hasieran ezinbestekoa izango den diru-laguntza, gerora enpresaren hedapena eta hazkundea ahalbidetzeaz gain beste enpresa batzuekin elkarlana bermatuko duena.